

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### BARRUNDIAKO UDALA

#### 2024ko Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga ordaindu behar dutenen errolda jendaurrean jartzea eta zergabiltetarako aldia

Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren errolda, 2024koa, egin denez gero, jendaurrean jartzen da, interesdunek egoki deritzeten erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten. Horretarako, hamabost egun baliodun izango dituzte iragarki hau ALHAO argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Interesdunek aipatutakoaren gaineko dokumentazioa udal idazkaritzan izango dute eskuragarri, jendea hartzeko orduetan.

Era berean, zerga ondoko epeetan kobratuko dela iragartzen da:

A) Araututako epea: 2024ko maiatzaren 13tik uztailaren 15era.

B) Betearazpen epea: 2024ko uztailaren 16tik aurrera betearazpen epeari emango zaio hasiera, eta betearazte errekarquak, premiamendu urrituzkoak eta ohiko premiamenduzkoak ordaindu beharko dira Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak adierazitako epeetan.

Ozaeta, 2024ko apirilaren 10a

*Alkatea*

*IGOR MEDINA ISASA*